



BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATUA

PROBA LIBREA

KOMUNIKAZIO-EREMUA EUSKARA ETA LITERATURA

2014KO AZAROA

IZEN-DEITURAK: _____

SINADURA:

JARRAIBIDEAK

1. Testua eta galderak arretaz irakurri.
2. Galdera guztiak erantzuten saiatu.
3. Emandako denbora baino lehen bukatuz gero, birpasatu egindakoa.
4. Adi ortografiari: letra larriak, txikiak, puntuak, komak, etab.
5. Horrela eskatzen den ariketetan, erantzun zuzena biribildu edo gurutze bat egin.
6. Galdera bakoitzaren alboan dator puntuazioa.

Poziktibity: euskaraz, lotsarik eta beldurrik gabe

Erredakzioa
2014/05/26



EITBren lankidetzarekin egindako proiektu honek euskara "beldurrik eta konplexurik gabe" erabiltzera bultzatu nahi ditu herritarrak. Hainbat pertsona ezagunek lekukotasuna eman dute.

Cristina Uriarte Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak, Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, Maite Iturbe EITBko zuzendariak eta Imanol Agirretxe Realeko eta Aritz Aduriz Athleticceko jokalariek Poziktibity euskararen erabilera sustatzea helburu duen proiektua aurkeztu dute.

'Poziktibity', "jarrera bat da", gaurkoan azaldu dutenez, **"tonu bat da, balore batzuk"**. (...) Gizartean erreferente diren pertsonen sortutako elkarrizketez baliatu da 'Poziktibity'. Formatu ezberdinetan erakutsiko dituzte elkarrizketa horietan, elkarrizketako protagonistek euskararekin esparru ezberdinetan izan dituzten esperientziak: familian, aisialdian, lanean...

Bideoan grabatutako elkarrizketak hiru lekutan zabalduko dira: kalean, hedabideetan eta, batez ere, Sarean, [ekimenaren webgunean](#).

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua den Cristina Uriartek esan duenez, "azken urteotan, esan eta esan ari gara geroz eta euskaldun gehiago garela, eta hala da. Hau erabat da poztekoa. Hala ere, euskararen ezagutza eta bere erabilera ez dira neurri berean hazi. Hori neurri batean normala da, baina hori da gu arduratu behar gaituena, eta arduratzen gaituena. Eta hor jarri behar ditugu orain gure indarrak".

Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak erantsi duenez, "badira arrazoi asko hizkuntza bat edo beste bat erabiltzeko hautua egiten denean. Jendeak bere beldurrak, lotsak, konplexuak... ditu eta gauza normala da. Hemen sartzen da 'Poziktibity'. Hori da bere lekua. Proiektu honek beldurrik eta konplexurik gabeko euskararen erabilera bultzatzen du. Alegia, jendea animatzea da bilatzen duena. **Euskararik txarreana egiten ez dena da**".

EITBrekin lankidetzan

Maite Iturbe EITBko zuzendari nagusiaren hitzetan, "euskara EITB sortzeko arrazoi bat da. Arrazoi nagusia, esango nuke nik. Guk, aktualitatea, egunerokotasuna, informazioa, euskaraz bizi dugunez, gure helburua da geroz eta jende gehiagok eduki hauek euskaraz kontsumitzeko aukera zabala izatea. Eta kontsumitzea. Euskara hizkuntza bizia bada eta honela izaten jarraitzea nahi badugu, honegatik da garrantzitsua EITBk eskaintzen dituen edukietan euskarak presentzia eta protagonismoa izatea. Informazioa dela, entretenimendua dela, dibulgazio tartek direla... denetan".

"Poziktibityren' tonua gurea ere badenez, eta helburuetan erabat ados gaudenez, hasieratik ikusi genuen garbi proiektu honetan sartzea. Ez genuen inolako zalantzarik izan. Hau denontzako baita positiboa", adierazi du Iturbek.

EITB.com

GALDERAK

TESTUAREN ULERMENA

1.- Testuaren arabera, esan baieztapen hauek egia ala gezurra diren. idatzi E, egia bada; eta G, gezurra bada. (2 puntu)

1. *Poziktibity* Eusko Jaurlaritzak eta EITBk bultzatutako ekimena da.
2. Kanpaina honetan edozein euskaldunek graba ditzake bideoak.
3. Euskara gero eta jende gehiagok dakiela adierazi du Cristina Uriarte Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak.
4. Askotan ez dugu euskaraz egiten ausartzen ez garelako jendearen aurrean hitz egiten.
5. Inportanteena hizkuntza erabiltzea da eta komunikatzea; ez ondo hitz egitea.
6. EITBrentzat kanpaina honek garrantzi handia du euskara baita haren ardatza.
7. Publizitate kanpaina baino gehiago da *Poziktibity*; izan ere, jendearengan jarrera bat inposatu nahi du.
8. Euskararen indarra eta gizarteko erabilera ziurtatzeko ahalegina egiten du EITBk.
9. Ekimen honek internet baliatzen du, besteak beste, informazioa emateko eta grabatutako bideoak ezagutarazteko.
10. Kanpaina honek iradoki nahi du euskaraz hitz egiten badugu une onak pasa ditzakegula.

2. Erantzun galdera hauei:

2.1. Zure ustez, zergatik jarri diote ekimen honi *Poziktibity* izena? (0,5 p)

2.2. Zergatik aukeratu dituzte *Poziktibity*rako Errealeko eta Athletickeko jokalaria? Aukeratu erantzun zuzena. (0,25 p)

- Lehen mailako futbol taldeetako jokalaria direlako
- Futbolak euskaltzale asko biltzen dituelako
- Euskaraz hitz egiten dutelako
- Oso ezagunak direlako eta euskaraz dakitelako

2.3. Hauxe dio testuak “Poziktibity tonu bat da”. Zer esan nahi du? (0,5 p)

2.4. Zer esan nahi du testuko esapide honek?: Euskararik txarrena egiten ez dena da. (0,5 p)

3. Zein da testuaren helburua? Aukeratu erantzun zuzena. (0,25 puntu)

- Idazleak bere iritzia ematea euskara bultzatzeko kanpaina bati buruz.
- Ekimen baten berri ematea.
- Irakurleak konbentzitzea ekimen horretan parte har dezaten.

HIZKUNTZAREN EZAGUTZA

4. Bilatu testuko azken bi paragrafoetan honako hitz hauen sinonimoak. (0,5 puntu)

4.1. burua: _____

4.2. xedea: _____

4.3. egitasmoa: _____

4.4. duda-muda: _____

4.5. onuragarria: _____

5. Berridatzi esaldi hauek. Horretarako, erabili letra lodiz ematen den hitza. (0,6 puntu)

Adibidez:

“(…) elkarrizketako protagonistek euskararekin esparru ezberdinetan izan dituzten esperientziak: familian, aisialdian, lanean...” **(-dako)**

“(…) elkarrizketako protagonistek euskararekin esparru ezberdinetan **izandako** esperientziak: familian, aisialdian, lanean...”

5.1. “(…) gure helburua da geroz eta jende gehiagok eduki hauek euskaraz kontsumitzeko aukera zabala izatea”. (lortu nahi)

5.2. 'Poziktibityren' helburuetan erabat ados gaudenez, hasieratik ikusi genuen garbi proiektu honetan sartzea. **(-lako)**

6. Topatu testuan honako gramatika kategoria hauen adibideak: (0,4 puntu)

Adibidez:

Aditz bat: **eman dute**

Adjektibo bat: _____ ; Izenordain bat: _____

Adberbio (aditzondo) bat: _____ ; Izen arrunt bat: _____

7. Hizkuntza erabiltzen. Testu labur honetan atzizki batzuk ezabatu ditugu. Hutsuneak bete. (1 puntu)

Adibidez:

“Elkarrizketako protagonist..... euskara..... esparru ezberdin..... izan dituzten esperientzi..... (...)”

“Elkarrizketako protagonistek euskararekin esparru ezberdinetan izan dituzten esperientziak (...)”

Testua

Reyes Prados eta Anne Igartiburu.....(1) mezu bat emango digute: "inoiz ez da berandu beste hizkuntza bat ikas.....(2). Heldutan ere hizkuntzak ikastea oso garrantzitsua da".

'Poziktibity' euskara..... (3) erabilera sustatzea helburu duen proiektua da. Jarrera berri bat euskararekiko, irekia, jende..... (4) erakartzen duena. Euskara dakiten..... (5) gonbidapen..... (6) da, erabili dezaten, eta ez dakitenentzako ere bai, euskara..... (7) hurbildu daitezten.

Horren harira, zenbait datu azpimarratu ditu Eusko Jaurlaritzak. Euskara..... (8) hiru hamarkada.....(9) 300.000 hiztun irabazi ditu, horietatik 100.000 euskaltegien bitarte..... (10).

Ikasbil.net

8. IDAZLANA (3,5 puntu)

Testu bat idatziko duzu. Gutxienez, 120 hitz eduki behar ditu. Aukeratu bi gai hauetatik bat:

A AUKERA: Ni ere Poziktibity naiz. Hauxe da nire esperientzia euskararekin

Elkarrizketa egingo dizute *Poziktibity* ekimenerako. Euskaraz bizi izan duzun esperientzia on bati buruz hitz egingo duzu: familian, kalean, lagunekin...

Esperientzia horri buruz hitz egiteko, lehendabizi, testua idatziko duzu.

Idea hauek lagundu ahal dizute idazlana garatzen:

- Kontatu non gertatu den, noiz, norekin... e.a.
- Zer gertatu da (zen)?, zergatik gustatu zaizu (zitzazun)?...
- Zer esango diozu euskaraz egiten ez duen bati beldur delako edo lotsatu egiten delako? Zer egin behar da gazteek euskara gehiago erabil dezaten?
-

B AUKERA: Poziktibity bideoa grabatzeko prest?

EITB jende bila dabil *Poziktibity*rako bideoak grabatzeko. Zuk lagun on bat duzu, euskalduna da eta oso-oso ospetsua. Animatu *Poziktibity*n parte hartzera!

Idatz iezaiozu mezu bat, e-posta bat, eta azaldu zer den *Poziktibity*, zer egin behar duen eta zergatik hartu behar duen parte. Zure helburua da laguna konbentzitzea.

A edo B testuak idazteko, kontuan hartu jarraibide hauek:

- Idatzi, gutxienez, 120 hitz.
- Egizu zirriborro bat ideiak garatzen hasi aurretik.
- Hala behar izanez gero, baliatu testuko ideiak.
- Idatzi eta entregatu aurretik, birpasatu ideien arteko koherentzia eta kohesioa, ortografia....

Idatzi hemen

Gaia: _____

.....

.....

.....

.....

5.....

.....

.....

.....

.....

10.....

.....

.....

.....

.....

15.....

.....

.....

.....

.....

20.....